

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko urriaren 31

126. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Foru Administrazioan informatika kontratatu eta kudeatzeari buruzko fiskalizazio txostena (2011-2015),
Kontuen Ganberak egin (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Foru Administrazioan informatika kontratatu eta kudeatzeari buruzko fiskalizazio txostena (2011-2015), Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 5ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Foru Administrazioan informatika kontratatu eta kudeatzeari buruzko fiskalizazio txostena (2011-2015) egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Administrazioan informatika kontratatu eta kudeatzeari buruzko fiskalizazio txostena (2011-2015), Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (3. or.).
 - II. Foru Administrazioko informatikaren kudeaketa (3. or.).
 - III. Helburua, norainokoa eta mugak (9. or.).
 - IV. Konklusioak eta gomendioak (13. or.).
 - IV.1 Foru Administrazioko informatikari lotutako gastuak izan duen bilakaera (2011-2015) (13. or.).
 - IV.2 Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia (17. or.).
 - IV.3 Amaierako konklusioa eta gomendioak (18. or.).
 - I. eranskina. Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren antolaketa egitura (20 or.).
 2. eranskina Foru Administrazioko informatika zerbitzugintzari buruzko jarduera-adierazleak (2011-2015) (21. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (22. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (22. or.).

I. SARRERA

Kontuen Ganberak bere ekimenez onartu zuen 2011-2015 aldian Foru Administrazioan informatika kontratatzeari eta kudeatzeari buruzko fiskalizazio-txostena egitea, eta lan hori 2015. urteko fiskalizazio-programan sartu zuen.

Lan hori 2015eko abendutik 2016ko martxora arte egin zuen auditoriako hiru teknikarik eta auditore batek osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboekin lankidetzan.

Txostenak lau atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, Foru Administrazioako informatikaren kudeaketari buruzko deskribapen orokor bat egiten da; hirugarrenean, txostenaren helburuak, norainokoa eta mugak azaltzen dira; azkenik, laugarrenean, gure lanaren konklusioak eta gomendioak deskribatzen dira. Txostenak bi eranskin ditu, bai Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren antolaketa-egitura bai eremu horretan gauzatzen den jardueraren adierazle batzuen bilakaera biltzen dituztenak.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Lehendakaritza Departamentuko eta Hezkuntza Departamentuko langileei (eta, bereziki, Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusikoei), lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak honako karguetan ziharduten pertsonen jakinarazi zitzaizkien, alegazioak aurkez zitzaizkien:

- Lehendakaritzako kontseilaria
- Hezkuntzako kontseilaria
- Lehendakaritzako kontseilari ohia
- Hezkuntzako kontseilari ohia

Kontuen Ganberak ezarritako epearen barnean alegazioak aurkeztu ditu Lehendakaritzako kontseilariak.

Alegazio horiek azalpenak dira, ez dute aldaketarik eragin, eta behin betiko txostenari erantsi zaizkio.

II. FORU ADMINISTRAZIOKO INFORMATIKAREN KUDEAKETA

Informatika eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak dira informazioa modu eraginkorragoan eta efizienteagoan kudeatzeko jardueren multzoa. Arloko aurrerapenak etengabeak dira, eta lan egiteko modua eraldatu dute, kudeaketarako funtsezko elementua izanda.

Foru Administrazioan informatika hiru bideren bitartez kudeatzen da: bertako langileak, kanpoko enpresekiko kontratuak eta ente instrumentalei agindutako mandatuak. Informatikari zuzenean lotutako aurrekontu gastua 43,56 milioi eurokoa izan zen 2015ean, eta honela banakatu zen:

	Zenbatekoa	Ehunekoak, guztizk. gain.
2. kapitulua. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	26.670.530	61
6. kapitulua. Inbertsioak	10.453.011	24
1. kapitulua. Langileria gastuak	6.434.327	15
Guztira	43.557.868	100

Gastu osoaren % 61 ondasun arruntei eta zerbitzuei dagokie. Horien artean, "Zerbitzu informatikoak" kontzeptua nabarmentzen da, 18,33 milioi euroko gastua (kapituluko gastuaren % 70) baitu; gastu hori informatikari lotutako kanpoko enpresak kontratatzeak eta ente instrumentalei agindutako mandatuak eragin dute. Zehatz-mehatz, 2015ean, 80 laguntza kontratu adjudikatu

ziren 6,2 milioi euroko zenbatekoan, eta 35 mandatu agindu zitzaizkien ente instrumentalei (Tracasa eta Nasertic), 10,42 milioi euroko zenbatekoan.

Inbertsioetako gastua gastu osoaren % 24koa izan zen, eta, horri dagokionez, "Bestelako ibilgetu immateriala" kontzeptua nabarmentzen da, bertan aplikazio informatikoen lizentzien erosketa erregistratzen dela. Kasu horretan, 2015ean, 22 hornidura kontratu adjudikatu ziren 0,6 milioi euroko zenbatekoan.

Bertako langileetan eginiko gastua gastu osoaren % 15ekoa izan zen, eta gehienbat Lehendakaritzaren Departamentuan bildu zen. Izan ere, kontratazioari eta mandatuari buruzko kudeaketa ia guztia Zuzendaritza Nagusi batean zentralizatuta dago, eta, gure lanaren denbora-eremuaren barruan, Zuzendaritza Nagusi hori aipatutako departamentuaren mende egon da —eta gaur egun ere badago—.

54/2015 eta 198/2015 Foru Dekretuak departamentu horren egitura organikoa arautzen duen araudia dira, Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusia egitura horren barnean dagoela.

Hona hemen zuzendaritza horren oinarritzako eginkizunak:

- Informazio sistemak eta teknologiak kudeatzea, baita informatika eta telekomunikazio zerbitzuak eta azpiegiturak eta ikus-entzunezkoak hedatzeko zerbitzuak ere.
- Foru Administrazioan informazioaren eta telekomunikazioen teknologia berriak garatzea, baita azpiegitura teknologikoak ere.
- Erabiltzaileei euskarria ematea.
- Informazio sistemen segurtasuna.
- Bere eskumenen esparruan, Foru Administrazioaren antolaketa eta berrikuntza.

Azken urteotan Nafarroako Gobernuak departamentu guztietan beharren gehikuntza nabarmena egon da informatikaren arloan, baina horrek ez du berekin ekarri informatikan diharduten langileen plantilla handitzea; are gehiago, plantilla hori murriztu egin da. Horrek eta Administrazio-ko aplikazio garrantzitsuenei buruz denboran metatutako jakintza espezializatuak, batzuetan eskusiboa denak, eragin dute oro har zuzendaritza horrek zerbitzuak ez ematea bere baliabideen bidez, baizik eta kanpoko enpresak kontratatzea edo ente instrumentalei mandatuak agintzea horretarako.

Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko langileak eurak arduratzen dira Foru Administrazio osoko informatikari lotutako mandatuak adjudikatzea eta gauzatzeko espediente guztiak tramitatzeaz, honako hauek izan ezik: ikastetxe publikoetako informazio-sistemen eta -teknologiaren informatika-aktiboen arloko laguntza kontratuak eta aktibo horiek behar bezala erabiltzeko eta ustiatzeko behar diren zerbitzuei lotutako kontratuak ere; izan ere, horiek Hezkuntza Departamentuaren eskumenekoak dira.

Eskumenak zuzendaritzan zentralizatzeko honako jarduketara prozedura hau dakar: informatikari lotutako ondasunen edo zerbitzuren bat behar duen departamentuak bere beharren berri ematen dio Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiarri; eta zuzendaritzako batzorde informatiko batek, horiek aztertu eta zehazteaz gain, horien gastua balioesten du. Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak balioespen horren berri ematen dio dena delako departamentuari, eta horrek aurrekontuan duen diruaren berri ematen dio. Gauzak horrela, zuzendaritza arduratzen da kontratuak adjudikatzeaz edo mandatu hori agintzeaz.

Ondoren, Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusia da kontratuaren eta mandatuen jarraipena eta kontrola gauzatzen dituen, Hezkuntza Departamenturako aipatu diren agiriak izan ezik. Jarduera handitu denez eta langileak gehitu ez direnez, batzuetan mandatuak agintzen zaizkie ente instrumentalei, kanpoko enprekin sinatzen diren kontratu zehatz batzuei lotutako zeregin horiek gara ditzaten.

Zuzendaritza horrek kudeatu eta kontrolatzen du kontratu eta mandatu horietatik eratortzen den gastua, baina egotzi, aurrekontuen aldetik, egotzen zaio ondasuna edo zerbitzua benetan jasotzen duen departamentuari.

Zeregin horiek gauzatzeko, zuzendaritza hori bost zerbitzutan egituratzen da; aldi berean, zerbitzu horiek 18 ataletan banatzen dira, eta badaude beste bi atal, zuzenean zuzendaritzaren mende daudenak. Egitura horren xehetasuna Txosten honen 1. eranskinean kontsultatu daiteke.

Aipatutako zuzendaritzako langileez gain, gainerako departamentuetan ere badaude informatikari lotutako lanpostuak. Departamentu horien artean, Osasuna eta Hezkuntza nabarmendu behar dira. Txosten hau idatzi den egunean, 2015eko plantilla organikoa argitaratu gabe zegoen artean. Hori dela eta, ezin dugu datu ofizialik eman informatikari lotutako lanpostuei buruz. Jarraian, 2014ko plantillari dagozkion datuak azaltzen ditugu:

Departamentua	Lanpostu kop.	Ehunekoak, guztizkoaren gainean
Lehendakaritza	89	56,0
Osasuna	47	29,6
Hezkuntza	13	8,2
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	4	2,5
Ogasuna eta Finantza Politika	3	1,9
Eskubide Sozialak	2	1,3
Kultura, Kirola eta Gazteria	1	0,6
Guztira	159	100

2014an, lanpostu guztien % 56 Lehendakaritza Departamentuari, % 30 Osasun Departamentuari eta % 8 Hezkuntza Departamentuari zegozkien.

Osasun Departamentuko langileek departamentu horren erabiltzailearentzako arreta gauzatzeko funtsean; Hezkuntza Departamentukoek, berriz, erabiltzailearentzako arreta eta kontratazioa gehienbat, lehenago aipatu den bezala.

Aurreko guztia kontuan hartuta, gastuak 2015ean kapituluka eta departamentuka izan duen banaketa honako hau izan da:

Departamentua	Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastua	Inbertsioetako gastua	Langileria gastua	Guztira
Lehendakaritza	14.442.753	812.218	3.285.394*	18.540.365
Osasuna	2.443.541	6.064.515	2.186.316	10.694.372
Ogasuna eta Finantza Politika	5.518.322	1.574.281	79.754	7.172.357
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	1.994.988	326.790	210.937	2.532.715
Hezkuntza	875.858	817.777	565.371	2.259.006
Kultura, Kirola eta Gazteria	799.272	186.439	46.234	1.031.945
Eskubide Sozialak	316.056	369.183	60.321	745.560
Sustapena	279.740	301.808	-	581.548
Guztira	26.670.530	10.453.011	6.434.327	43.557.868

(*) Langileria gastuei kendu egin zaizkie nominan atxikitako pasibo-kuota guztiak (44.386 euro), aurrekontuen aldetik departamentu horri egotzi baitzaizkio.

Gastuaren % 43 Lehendakaritza Departamentuari, % 25 Osasun Departamentuari eta % 16 Ogasun Departamentuari zegokien. Gainerako departamentuek ehuneko txikiagoak dituzte guztizko gastuaren gainean. Dena den, Sustapen Departamentua nabarmendu behar da, gastuaren % 1,34 baino ez baitu.

Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak emandako informazioaren arabera, Foru Administrazioaren katalogoan 3.200 produktu informatiko daude bilduta; horietatik 2.408 informazio sistemak dira, eta 792, aldiz, software estandarrik. Horietatik guztietatik, honako hauek dira produktu garrantzitsuenak, jarraian zehazten diren faktoreak kontuan hartuta: Nafarroako Gobernuako departamentuetako jarduerarako garrantzia, produktuak erabilia lan egiten duten erabiltzaileen kopurua, produktuok mantentzeko eta bilakatzeko

egin behar den ahalegina, eta Nafarroako Gobernuaren ikuspuntu orokorretik daukaten garrantzia.

Produktua	Deskribapena	Kudeatzeko modua
navarra.es ataria	Zeharkako aplikazioa, Nafarroako Gobernuak herritarrekin komunikatzeko duen hedabide nagusia	Kanpoko kontratazioa
SAP	Langileria gastuak, aurrekontua, kontabilitatea, diruzaintza, eskaerak eta abar kudeatzea	Kanpoko kontratazioa eta, neurri txikiagoan, bertako langileak
Gehigarria	Nafarroako Gobernuko espedienteen kudeatzaile korporatiboa	Ente instrumentalari agindutako mandatua eta kanpoko kontratazioa
Aitorpen telematikoa	Zerga-aitorpena aurkeztea, 150 eredu baino gehiago egonda	Kanpoko kontratazioa eta ente instrumentalari agindutako mandatua
Arreta Espezializatuko historia klinikoa	Herritarren osasun eta gaixotasun gertaerei eta gertaera horiek sortzen duten jarduerari buruzko dokumentuak kudeatzea	Kanpoko kontratazioa
OIF	Itxaron-zerrendak, programazio kirurgikoa, ospitaleratzeak, kanpo-kontsultak, eguneko ospitaleak eta abar kudeatzea	Kanpoko kontratazioa
ATENEA	Oinarrizko Laguntzako historia kliniko informatizatua	Kanpoko kontratazioa
Lekualdatze-lehiaketa	Aplikazio telematikoa, irakasleek Foru Komunitatearen barnean edo horretatik kanpo lekualdatzea eska dezaten.	Kanpoko kontratazioa eta ente instrumentalari agindutako mandatua
NPE laguntzak kudeatzeko sistemak	Europar Batasuneko nekazaritza ekoizpenari emandako diru-laguntzak kudeatzea	Nekazaritza Ministerioarekiko hitzarmena eta kanpoko kontratazioa
Errezeta elektronikoa	Errezetak agindu, ikus-onetsi, eman, administratu eta fakturatzeko	Kanpoko kontratazioa
Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko ziurtagiriak erregistratzea	Eraikinen eraginkortasun energetikoari buruzko ziurtagiriei lotutako informazioa, ziurtagiriak erregistratzea eta eraikinen kalifikazioa kontsultatzea	Kanpoko kontratazioa
Errepideetako Gorabeheren buruzko Sistema (SINCA)	Zaintza parteak eta gorabeherak erregistratzea, eta Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak gorabeherak kudeatzea	Kanpoko kontratazioa eta ente instrumentalari agindutako mandatua
Quorum	Nafarroako Gobernuaren bileretako aktak eta erabakiak prestatu eta biltzea	Kanpoko kontratazioa
SIP ataria	Foruzaingoarentzat datuak kudeatzea (Udaltzaingoarentzat ere hedatzeko prozesuan dago)	Ente instrumentalari agindutako mandatua
Inskripzioak kudeatzea (Enplegu Agentziak)	Prestakuntza ikastaroetako eta tailerretako inskripzioak kudeatzea	Kanpoko kontratazioa
IDECAL	Nafarroako toki entitateen kontabilitate espedienteak kudeatzeko informazio sistema	Kanpoko kontratazioa
Etxebizitza babestuen eskatzailen errolda	Etxebizitza babestua eskuratzeko inskripzioak erregistratzea, etxebizitza babestuen sustapenak kudeatzea eta etxebizitza horiek adjudikatzea	Kanpoko kontratazioa
ABSYSNET	Liburutegi-kudeaketarako tresna: katalogazioa, irakurleen kudeaketa, maileguak eta abar.	Kanpoko kontratazioa
INFOREYNO	Nafarroako baliabide turistikoak kudeatzea, turismoari buruzko atariaren eta sakelako aplikazioaren bidez hedatzeko	Kanpoko kontratazioa

Lehendik dauden 3.200 produktuek garatu edo sortu duten jarduera neurtzeko, adierazle batzuk daude, eta, horiek behar bezala ulertzeko, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Erabiltzailearentzako Arreta Zentroa (EAZ), kanpoko enpresa bati esleitu zaiona (ordutegi jakin batean Osasun Departamentuaren kasuan izan ezik), Foru Administrazioiko erabiltzaile guztiei 24 orduetan eta urteko 365 egunetan euskarri informatikoa emateaz arduratzen da. Jarraian, dauden EAZ talde guztiak erakusten ditugu:

•

EAZ taldea	Egunak	Orduetgia	Euskarri mota
Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko EAZ (kanpoko enpresa)	Astelehenetik ostiralera	08:00 - 15:00	Telefono bidezko laguntza, urrutiko laguntza, aurrez aurreko laguntza
	Astelehenetik ostiralera	15:00etatik hurrengo eguneko 08:00etara	Telefono bidezko laguntza, urrutiko laguntza
	Larunbat, igande eta jaiegunetan	00:00 - 23:59	Telefono bidezko laguntza, urrutiko laguntza
Landa Garapeneko eta Ingurumeneko EAZ (kanpoko enpresa)	Astelehenetik ostiralera	08:00 - 15:00	Telefono bidezko laguntza, urrutiko laguntza, aurrez aurreko laguntza
Gizarte Politiketako EAZ (kanpoko enpresa)	Astelehenetik ostiralera	08:00 - 15:00	Telefono bidezko laguntza, urrutiko laguntza, aurrez aurreko laguntza
O-NOZeko EAZ (bertako langileak)	Astelehenetik ostiralera*	08:00 - 15:00	Telefono bidezko laguntza, urrutiko laguntza, aurrez aurreko laguntza
		15:00 - 22:00	Telefono bidezko laguntza, urrutiko laguntza, Aurrez aurreko laguntza, 1. mailako guardia duena

(*) 22:00etatik 08:00etara bitartean eta larunbat, igande eta jaiegunetan, Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko EAZ da O-NOZeko EAZko erabiltzaileei euskarria ematen diena.

- Tiketak EAZk gauzatzen duen jarduerari buruzko datu garrantzitsuak biltzen dituzten fitxak dira. Teorian, EAZk jasotzen dituen abisu guztiak tiket independente gisa erregistratu beharko lirateke.

- Tiket horiek sailka daitezke gorabehera gisa (erabiltzen ari zen zerbitzua etetea edo horren kalitatea murriztea eragin dezakeen gertaera: Interneten sartu ezin izatea, inprimagailua trabatzea eta abar) edo zerbitzu eskaera gisa (zerbitzu berriak eskuratzea edo daudenak aldatzea: posta elektronikoko kontu bati alta ematea, aplikazio batean alta hartzea eta abar).

- Lanak dira helburu bat lortzeko egiten diren zereginen multzoa. Hainbat mota daude: bidegarritasun-azterlana, sortze- edo bilakatze-proiektua, eta abar. Lan biziak urtean zehar "aribidean" egoera dutenak dira, hau da, ekitaldi bakoitzean uneren batean gauzatzen direnak.

Hurrengo taulak 2015erako adierazle garrantzitsuenetako batzuen balioak agertzen ditu; 2011-2015 aldirako balioak 2. eranskinean adierazten dira:

Adierazlea	2015eko balioa
Nafarroako Gobernuko lanpostu kop. (1)	13.468
Tiket kop. (2)	165.965
Tiketen eguneko batez bestekoa	455
Tiket moten ehunekoa:	
Gorabehera	% 66
Zerbitzu-ematea	% 34
Tiketen ehunekoa, lehentasunaren arabera:	
Presakoa	% 1,6
Handia	% 1,8
Ertaina	% 84,6
Txikia	% 12
Tiketari konponbidea aurkitzeko batez besteko denbora	3,9 egun
Tiketari konponbidea aurkitzeko moduen ehunekoa:	
Aurrez aurrekoa	% 30
Urrutiko laguntza	% 25
Aplikazioan/sisteman goi mailara aldatzea	% 15
Telefono bidezkoa	% 7
Bestelakoak	% 13
Tiketen ehunekoa, departamentuaren/erakundearen arabera:	
Osasuna	% 36
Lehendakaritza	% 26
Instituzioak, erakunde publikoak, fundazioak eta bestelakoak	% 11
Ekonomia eta Ogasuna	% 10
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	% 7
Bestelakoak	% 10
Lan biziak	3.912
Lanen ehunekoa, departamentuaren arabera	
Osasuna	% 28
Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusia	% 20
Ekonomia eta Ogasuna	% 15
Lehendakaritza	% 11
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	% 6
Bestelakoak	% 20

(1) Sartzeko daude Hezkuntza Departamentuaren mende dauden ikastetxeetako ordenagailuak. Departamentu horrek adierazi duenaren arabera, 16.000 ordenagailu inguru dira, eta horietatik 13.459 baino ez daude inbentariatuta; 2.500 zaharkituta daude.

(2) Gehitzeko daude Hezkuntza Departamentuak egin dituen tiketak: 2.279 izan ziren, eta hor ez daude zenbatuta ikastetxeetan in situ gauzatu diren jarduketak.

III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Lanaren helburuak hauexek dira:

- Foru Administrazioako informatikarekin 2011-2015 aldian zerikusi zuzena izandako gastuak kuantifikatzea.
- Laguntza eta hornidura kontratuen lagin baten adjudikazioa aztertzea, baita informatikari lotutako ente instrumentalei agindutako mandatuen lagin bat ere.
- Berrikustea ea aurreko kontratazioetatik eta mandatuetatik haien indarraldiko azken urterako eratorritako gastuak behar bezala justifikatuta eta kontabilizatuta dauden, eta horien gainean jarraipen egokia egin ote den.

Lana burutu da Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitakoak eta Kontuen Ganberak bere fiskalizazio-eskuliburuan garatutakoak diren sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz; horien artetik, aplikatu dira "Fiskalizazio operatiboari buruzko oinarritzko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 300 araua eta "Betetzeari buruzko fiskalizazioaren oinarritzko printzipioak" izeneko 400. araua.

Helburu horiek lortzeko, honako informazio hau aztertu dugu:

- Informatikari 2011-2015 aldirako lotutako kontu-sailen aurrekontu-gauzatzea.
- Foru Administrazioako langileen 2011-2014 aldirako plantilla organikoak. 2015ari dagokion plantilla ez zegoen eskuragarri gure lana egitean. Horregatik, SAP programako Giza Baliabideak aplikazioan lanpostuei buruz zeuden datuak hartu dira aintzat.

Informatika zereginei zuzenean lotutako langileak hartu ditugu kontuan, alde batera utzita bai Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiko Antolaketaren eta Berrikuntza Publikoaren Zerbitzua bai aztertutako zerbitzuari lotu gabeko beste zeregin batzuk egiten dituzten zuzendaritza horretako langileak.

- Informatika zereginetan diharduten Foru Administrazioako bertako langileen gastuak, Lehendakaritza Departamentuak eskainiak, eta SAP programako Giza Baliabideak aplikazio informatikoaren bidez lortu direnak, plantilla organiko horietako lanpostuei lotuta.
- Aztertutako aldiran ISri lotuta tramitatu diren espediente guztiei buruz Kontratuen Erregistroak emandako informazioa.
- Guztira, 19,19 milioi euroko zenbatekoa duten 31 espedienteren lagina da (13 laguntza kontratu, 9 hornidura kontratu, eta ente instrumentalei agindutako 9 mandatu). Gainera, indarraldiko azken urterako kontratazio edo mandatu horietatik eratorritako gastu espedienteak berrikusi dira. Aztertutako laginaren xehetasuna hurrengo orrialdean ageri dena da.

Laguntza kontratuak	Adjudikazio urtea	Adjudikazio zenbatekoa
Nafarroako Gobernuaren eta haren erakunde autonomoen sistema informatikoetarako 2. mailako laguntza tekniko 2012an zehar Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuko informazio sistema batzuen 2012rako mantentze ebolutiboa	2012	2.855.248
Nafarroako Gobernuak erabiltzen duen liburutegi-kudeaketarako Absysnet sistemaren lizentzien eta laguntza teknikoaren 2013ko eta 2014ko mantentze-lanak	2012	197.889
Nafarroako Gobernuaren lan-estazioetarako eta zerbitzarietarako Microsoft produktuek erabiltzeko lizentzien 2013-2015erako alokairua	2013	3.456.823
O-NOZeko errejeta elektronikoko sistemaren (Lamia) 2013ko arkitektura, analisia, diseinua eta bilakaera	2013	578.508
O-NOZeko oinarritzko sistemak 2013an bliakatzeko laguntza teknikoak	2013	1.309.917
2014ko apirilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldirako Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio 1. mailako euskarri informatikoa	2014	1.171.487
Laguntza teknikoak hirugarrenen kontabilitate osagarriaren eta Nafarroako Gobernuaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren (GE'21) ar- teko 1. integrazio faserako.	2014	69.500
SAP lizentzien 2014ko mantentze-lanak kontratatzea	2014	373.567
Web plataformaren gaineko aplikazio-sorta baten 2014ko garapena eta mantentze ebolutiboa	2014	439.682
Laguntza tekniko SAP plataforman (Giza Baliabideak)	2014	67.375
Laguntza tekniko SAP plataformarako (GE'21)	2014	51.240
O-NOZeko laborategiak bateratzeko euskarri lanetarako laguntza tekniko eta OMEGA PSM eta OMNIUM sistemen 2014rako berrikuntza teknologikoa	2014	79.516

Hornidura kontratuak	Adjudikazio urtea	Adjudikazioaren zenbatekoa
Material informatikoa erostea, Integra TIC/IKT 2010 proiektuaren 3. fasea Nafarroako ikastetxe publikoetan ezartzeko	2010	706.983
Material informatikoa erostea, Integra TIC/IKT 2011 proiektuaren 4. fasea Nafarroako ikastetxe publikoetan ezartzeko	2011	220.339
Internetara iteteko suabaki-azpiegitura, eta Nafarroako Gobernuaren datu-prozesurako zentro nagusirako argitaratzea	2014	633.884
Soluzio bat erostea Nafarroako Gobernuaren tresneria informatikoarentzako malware-mehatxu etengabeen aurka	2014	89.999
Pantailarik gabeko 180 estazio ultratrinko, O-NOZeko Oinarritzko Laguntzako zentroetan Windows 7 sistemara migratzeko	2014	86.670
Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio hainbat unitatetarako hardware ekipamendua hornitu eta instalatzea	2014	78.180
Pantailarik gabeko 118 estazio ultratrinko eta bestelako ekipamendua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio hainbat bulegotarako	2014	94.349
Pantailarik gabeko 165 estazio konpaktu, Lizarrako eta Tuterako osasun barrutietan Windows 7 sistemara migratzeko	2014	80.355
Ekipo informatikoak erostea, Nafarroako ikastetxe publikoetarako:		
1. sorta: Ikastetxe publikoetako ekipoinformatikoak	2014	75.903
2. sorta: Lanbide Heziketako informatika		72.669
Material informatikoaren hornitzaileak hautatzeko esparru-akordioa	2014	*

(*) Esparru-akordioak ez dira zenbateko baten truke adjudikatzen; izan ere, hortien bidez hiru hornitzaile hautatzen dira, ondoren zerbitzua horiekin kontratatzen.

Ente instrumentalei agindutako mandatuak	Adjudikazio urtea	Adjudikazio zenbatekoa
Informazio sistemen eragiketa eta zerbitzu-maila SAP ingurunean (2010-2012)	2012	1.862.270
EDUCA proiektua 2013an garatzea	2013	399.965
Bulego teknikoa, EAZ zerbitzuak kudeatzeko eta hardwarearen mantentze-lanetarako, 2014/01/01etik 2017/12/31 bitarteko aldirako	2013	1.201.361
Bigarren mailako euskarria plataforma gehigarrian, 2014ko ekitaldian	2014	143.223
Laguntza teknikoa, Nafarroako Zerga Ogasuneko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuko aplikazioak eta sistemak mantendu, garatu eta bilakatzeko	2014	358.896
Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko garapen eta integrazio proiektuak 2015ean kudeatzeko zerbitzuak	2014	693.200
Ahots- eta datu-sare korporatiboa mantendu eta kudeatzea	2015	749.968
Nafarroako Zerga Ogasunaren plataforma telematikoen zerbitzu telematikoak, inprimaki elektronikoak eta oinarritzko osagaiak garatu eta eguneratzea	2015	568.279
Nafarroako lurralde-argibideetarako sistema (SITNA) 2015ean mantentzea	2015	274.981

Lan hau egitean eragin duten mugak honakoarekin daude lotuta:

- Informatikari zuzenean lotutako aurrekontu-kontzeptu ekonomikoak identifikatu ditugu. Hori-
etako batzuek zerbitzu horren gastuak baino ez dituzte biltzen; beste batzuek, berriz, hainbat
zerbitzuren gastu komunak dituzte (adibidez, "Azterlanak eta lan teknikoak" kontzeptua). Kon-
tzeptu komun horien edukia orraztu dugu, gure ustez gure aztergaiari zegozkion gastuak hauta-
tuta.

Gainera, Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagu-
siak adierazi digunaren arabera eta aztertutako aldiko aurrekontu egoera (luzapenak eta mugak
barne) kontuan hartuta, baliteke informatikari lotutako gastu batzuk kontabilizatuta egotea kon-
tuan hartu ez ditugun beste kontzeptu batzuetan.

- Informatikari lotutako lanpostu kopuruaren erabilera, kopuru hori SAP programako Giza Ba-
liabideak aplikaziotik 2015erako ateratakoa denean, beharbada ez da zehatz-mehatz bat etorriko
Foru Administrazioaren ekitaldi horretarako plantilla organikotik suertatzen denarekin; izan ere,
argitarakizun den dokumentu horrek urte bakoitzeko abenduaren 31ko errealitatea agertzen du,
eta SAP aplikazioak urte osoko langile-egoerari buruzko informazio osatuagoa eskaintzen du.

Nolanahi ere, uste dugu departamentu bakoitzeko gastuei eta lanpostu-kopuruari buruzko zu-
zenketak ez liratekeela adierazgarriak izanen, eta ez lituzketela aldatuko gure lanean ateratako
konklusioak.

IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, egindako lanetik heldu diren konklusio eta gomendio nagusiak aurkeztuko ditugu:

IV.1 FORU ADMINISTRAZIOKO INFORMATIKARI LOTUTAKO GASTUAK IZAN DUEN BILAKAERA (2011-2015)


2011-2015 aldian aurrekontu kapituluaren arabera Foru Administrazioako informatikari lotutako gastua honako hau izan zen:

	2011	2012	2013	2014	2015	Guztira	Aldea (%) 2015/2011	Aldea (%) 2015/2014
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	26.635.943	26.014.660	25.665.800	26.791.340	26.670.530	131.778.273	0,1	-0,5
Inbertsioak	12.091.193	10.767.324	9.520.924	11.973.863	10.453.011	54.806.315	-13,5	-12,7
Langileak	5.891.804	5.822.899	6.217.974	6.267.833	6.434.327	30.634.837	9,2	2,7
Guztira	44.618.940	42.604.883	41.404.698	45.033.036	43.557.868	217.219.425	-2,4	-3,3

Foru Administrazioak informatikan azken bost urteotan izandako gastu osoa 217,22 milioi eurokoa izan da. Horietatik, % 61 ondasun arruntei eta zerbitzuei lotuta dago, % 25 inbertsioei, eta gainerako % 14a langileei.

2015ean gastua 43,56 milioi eurokoa izan zen. Horietatik % 61 dagokie jaso diren ondasun arruntei eta zerbitzuei; % 24, egin diren inbertsioei; eta gainerako % 15a bertako langileei. Banaketa horri eutsi egin zaio aztertu den aldi osoan zehar. Gastua % 3,3 eta % 2,4 murriztu zen 2014aren eta 2011ren aldean, hurrenez hurren, eta bi kasuetan nabarmena izan da inbertsioen murrizketa.

Aldiko gastuak departamentuka izan duen banaketa honako hau izan da:



ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK

Aztertutako aldian gastu hori 131,78 milioi eurokoa izan zen, urteko batez besteko balioa 26,36 milioi eurokoa izan zela. Oro har, gastuaren % 56 Lehendakaritza Departamentuari dago; % 18, Ogasun Departamentuari; % 9, Osasun Departamentuari; % 8, Landa Garapeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari; eta gainerako % 9 gainerako departamentuen artean banatzen da.

Oro har, kapitulu horretako urteko gastua ez da nabarmen aldatu aztertutako aldian. Gauzak horrela, 2015ean, gastua ia 2011koa eta 2014koa bezalakoa izan zen (% 0,1 handituta eta % 0,5 murriztuta, hurrenez hurren).

Jarraian, 2011-2015 aldirako gastu horien laburpena erakusten dugu, kontzeptu ekonomikoaren arabera:

Kontzeptu ekonomikoa	Zenbatekoa	Guztizkoaren gaineko %
Informatika zerbitzuak	86.781.161	65,9
Programen eta lizentzien errentamenduak	14.734.200	11,2
Ekipo informatikoak eta telekomunikazioetakoak	13.171.264	10,0
Datu-transmisioak	8.376.046	6,4
Bestelako ibilgetu materiala	3.379.476	2,6
Hirugarrenek egindako bestelako lanak	2.816.280	2,1
Azterlanak eta lan teknikoak	2.338.814	1,8
Ezin inbentaria daitekeen material informatikoa	181.032	0,1
Guztira	131.778.273	100

Gastuaren osagai adierazgarriena (guztizkoaren % 66 hartzen du) kanpoko enpresak edo ente instrumentalak kontratatzeari edo horiei zerbitzuak agintzeari dagokio. Halaber, nabarmendu behar da programen eta lizentzien errentamendua, gastuaren % 11 hartzen baitu.

INBERTSIOAK

Kapitulu horretako 2011-2015 aldiko gastua 54,81 milioi eurokoa izan zen; horrek urteko batez besteko gastua 10,96 milioi eurokoa izatea dakar. Gastu horren % 41 Osasun Departamentuari egozten zaio; % 22, berriz, Ogasun Departamentuari; % 14, Lehendakaritza Departamentuari; % 8, Hezkuntza Departamentuari; eta gainerako % 15a, gainerako departamentuei, bakoitzak % 5etik beherako ehunekoak dituela.

Inbertsioetako gastua nabarmen murriztu zen 2012an eta 2013an, 2011ren aldean; 2014an neurri handian handitu zen, baina 2015ean berriro murriztu zen (% 13,5 2011ren aldean, eta % 12,7 2014aren aldean).

Gastu hori osatzen duten kontzeptu ekonomikoak honako hauek dira:

Kontzeptu ekonomikoa	Zenbatekoa	Guztizkoaren gaineko %
Bestelako ibilgetu immateriala	43.792.791	80
Informazioa prozesatzeko ekipoak	9.408.260	17
Beste altzari batzuk eta ekipoa	1.171.023	2
Azterlanak, txostenak eta bestelakoak	434.241	1
Guztira	54.806.315	100

Gastuaren % 80 "bestelako ibilgetu immateriala"ri dagokio. Horrek funtsean Nafarroako Administrazioak jabetzan erositako aplikazio informatikoak eta lizentziak hartzen ditu barnean. Gainera, aldi erositako ekipamendu informatiko osoa gastuaren % 17 da.

INFORMATIKARI LOTUTAKO KONTRATUAK ETA MANDATUAK

Aurreko kontzeptu ekonomikoen analisiak agertzen du zein garrantzitsua den kontratazioa informatika zerbitzua emateko. Hurrengo laukiak erakusten du nolako bilakaera izan duten adjudikatutako kontratuen, agindutako mandatuen eta hartzekodunen edo ente instrumentalen kopuruek:

	Mandatuak			Laguntza kontratuak			Hornidura kontratuak		
	Mandatu kopurua	Zenbatekoa	Ente instrumentalak	Kontratu kopurua	Zenbatekoa	Hornitzaileak	Kontratu kopurua	Zenbatekoa	Hornitzaileak
2011	32	12.332.779	6	40	3.917.624	27	15	1.066.573	12
2012	42	17.023.139	2	64	22.211.288	34	16	1.311.418	11
2013	51	13.515.631	2	50	12.632.026	47	13	8.641.214	8
2014	37	14.896.415	2	75	9.052.116	56	36	2.313.329	15
2015	35	10.417.527	2	80	6.186.158	47	22	623.441	5
Guztira	194	66.402.347	-	309	53.999.212	-	102	13.332.535	-

Datu horiek interpretatzeko, kontuan hartu behar da kontratuen eta mandatuen iraupena ez dela urtebetekoa izan ohi eta hasiera-egunak ez duela zertan izan urtarrilaren 1a. Horrek esan nahi du aipatzen den gastua ez datorrela bat aurrekontu-betetzearekin, eta kontratuen eta mandatuen kopuruak ez direla bat etortzen adierazitako urte bakoitzean indarrean daudenekin.

Aztertutako aldi horretan 194 mandatu agindu zitzaizkien, 66,4 milioi euroko zenbatekoan, sei ente instrumental ezberdini. Laguntza kontratuak 309 izan ziren, eta 54 milioi euroko zenbatekoa egin zuten, 123 hartzekoduni adjudikatuak; hornidura kontratuei dagokienez, 102 adjudikatu zitzaizkien 29 hartzekoduni, 13,33 milioi euroko zenbatekoan.

Mandatuetatik eratorritako gastuaren % 65,3 Nasertic-en biltzen da; gainerako % 34,6a, berriaz, Tracasan. Laguntza kontratuei dagokienez, zenbatekoaren % 68 bost hornitzailei adjudikatu zitzairen, bi milioi eurotik gorako zenbatekoan; hornidura kontratuei dagokienez, aldiz, zenbatekoaren % 75 lau hornitzailei adjudikatu zitzairen, eta horietako bati zenbateko osoaren % 55 bideratu zitzaion.

BERTAKO LANGILEAK

Txosten hau idatzi den egunean, Foru Komunitateko Administrazioiko 2015eko plantilla organikoa ez zegoen eskuragarri. Hori dela eta, ezin izan dugu informaziorik lortu informatikari urte horretarako lotutako lanpostuei buruz. 2015eko lanpostuei buruzko datuak SAP programako Giza Baliabideak aplikaziotik lortu ditugu. Baliteke informazio hori bat etortzea ala ez etortzea plantilla organikoko datuekin, baina, aldeak egonez gero, horiek ez lirakeke adierazgarriak izan beharko.

Aztertutako aldian informatikari lotutako plantilla organikoko lanpostuen bilakaera honako hau da:

Departamentua	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011	Aldea (%) 2015/2014
Lehendakaritza	102	106	88	89	87	-21	-2
Osasuna	52	44	49	47	47	2	-
Hezkuntza	8	10	13	13	15	88	15
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	7	4	5	4	5	-29	25
Ogasuna eta Finantza Politika	1	2	2	3	2	100	-33
Eskubide Sozialak	3	3	2	2	2	-33	-
Kultura, Kirola eta Gazteria	-	1	1	1	1	-	-
Guztira	173	170	160	159	159	-8	-

Lanpostuen beheranzko joera antzematen da; izan ere, % 8 gutxitu dira 2011koen aldean. Hala ere, 2015ekoak mantendu egin dira 2014koekin alderatuta, baina ez da ahaztu behar 2015eko datuak ez datozela bat plantilla organikoko datu ofizialekin.

2011-2014 aldiko plantilla organikoen arabera, lanpostu horien egoera honako hau zen:

Lanpostu mota	2011	2012	2013	2014	Guztizkoaren gaineko % 2014	Aldea (%) 2014/2011
Titularra, jabetzan	69	68	66	64	40	-7
Lanpostu hutsen betetzeak	26	34	40	43	27	65
Aldi baterako betetakoak (zerbitzu, atal eta bulegoetako burutzak)	27	23	28	27	17	-
Bete gabeko lanpostu hutsak	23	25	10	13	8	-43
Lanpostu-erreserbak	28	20	16	12	8	-57
Guztira	173	176	160	159	100	-8

Datu horiek aztertuta, nabarmendu dezakegu 2014an lanpostuen % 40 titularrek betetzen zizutela, % 35 hutsik zeudela (% 27 beteta), eta % 17 burutzak okupatzen zituzten langile funtzionarioek aldi baterako beteta zeudela.

Titularrek jabetzan dituzten lanpostuak, hau da, funtzionarioek betetzen dituztenak, % 7 murriztu direla ikusten da. Era berean, lanpostu hutsen betetzeak % 65 gehitu ziren, nahiz eta bete gabekoak % 43 murriztu ziren.

Lanpostu horien mailaketa kontuan hartuta, 2014an horien % 40 C mailakoak ziren; % 36, al-diz, B mailakoak; eta gainerako % 24 A mailakoak, honako taula honetan ikusten den bezala:

Departamentua	A maila	B maila	C maila	Guztira
Lehendakaritza	35	41	13	89
Osasuna	2	3	42	47
Hezkuntza	-	9	4	13
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	-	3	1	4
Ogasuna eta Finantza Politika	1	1	1	3
Gizarte Politikak	-	-	2	2
Kultura, Kirola eta Gazteria	1	-	-	1
Guztira	39	57	63	159

Ikusita bete gabeko lanpostu hutsak eta erreserbatutako beste batzuk (horiek ere betegabeak dira) daudela, jarraian erakusten dugu urte bakoitzeko abenduan informatikari lotutako zerbitzuren bat emateagatik gastua sortu zuten pertsonen kopurua:

	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011	Aldea (%) 2015/2014
Abenduan gastua sortu zuten pertsonen kop.	139	142	144	143	135	-3	-6

Ikusten denez, informatikari lotutako zerbitzuak benetan eman zituzten pertsonen kopurua ez dator bat lanpostu kopuruarekin, bete gabeko lanpostu hutsak eta lanpostu-erreserbak egoteagatik. 2015eko abenduan 135 pertsonak eman zituzten beren zerbitzuak; kopuru hori % 3 eta % 6 murriztu da, hurrenez hurren, 2011ren eta 2014aren aldean.

2011-2015 aldian lanpostu horiek sortutako gastua jarraian adierazten dena izan zen:

Departamentua	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011	Aldea (%) 2015/2014
Lehendakaritza	3.105.625	3.140.510	3.334.970	3.256.259	3.285.394	6	1
Osasuna	2.143.099	1.961.052	2.018.623	2.151.549	2.186.316	2	2
Hezkuntza	303.270	356.480	515.435	530.768	565.372	86	7
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	284.203	270.029	209.631	193.713	210.937	-26	9
Ogasuna eta Finantza Politika	-	4.123	31.917	35.447	79.754	-	125
Gizarte Politikak	55.606	58.745	63.453	53.955	60.321	8	12
Kultura, Kirola eta Gazteria	-	31.959	43.945	46.143	46.234	-	0,2
Guztira	5.891.804	5.822.899	6.217.974	6.267.833	6.434.327	9	3

Aztertutako aldi osoan langileria gastuak 30,63 milioi eurokoak izan ziren. Gastu horretatik % 53 Lehendakaritza Departamentuari dagokio (plantilla osoan daukan garrantzia kontuan hartuta); % 34, Osasun Departamentuari; eta % 7, Hezkuntza Departamentuari.

2015ean gastua 6,43 milioi eurokoa izan zen. Horrek esan nahi du % 3ko eta % 9ko gehikuntza izan zela 2014aren eta 2011ren aldean.

IV.2 LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

NAFARROAKO GOBERNUAREN ERANTZUKIZUNA

Nafarroako Gobernuak, kontratazioaren eta mandatuen arloko bere organo eskudunen bitartez, bermatu beharko du finantzen egoera-orrietan islatzen den adjudikatutako kontratuetatiko eta agindutako mandatuetatiko informazioa bat datorrela araudi indardunarekin.

Halaber, Gobernuaren erantzukizuna da hark beharrezkotzat jotzen duen barne-kontrola egitea, bermatze aldera kontratu eta mandatu horien kudeaketa eta erregistroan ez egotea lege-urraketarik eta iruzur edo akatsagatik oker materialik.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da legezketasun-iritzi bat ematea aztertutako kontratazio-espeditenteen esleipenari eta laginean sartutako mandatuen burutzeari dagokionez. Horretarako, gure lana egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde Publikoen oinarriko fiskalizazio-printzipioen arabera.

Printzipio horiek behartzen dute fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa halako moldez egin dezagun non moduzko segurtasun bat lortuko dugun zertaz eta Nafarroako Gobernuak kontratatatu eta agindutako jarduera, aztertu dena, alderdi esanguratsu guztietan araudi aplikagarriaren arabera izateaz.

Gure azterketa honakoan gauzatu da: egiaztatzea, hautaketazko probak eginez eta beharrezkotzat jo diren prozedura teknikoak aplikatuz, kontratazioari eta mandatuak agintzeari buruzko araudian ezarritako alderdi muntadunak bete direla. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne direla kontabilitate-erregistroko akats materialei buruzko arriskuen balorazioa eta aipatutako araudiaren ez-betetze aipagarriak.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du betetzeari buruzko gure auditoria-iritzia emateko.

LEGEDIAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure ustez, aztertu diren eta Nafarroako Gobernuak egin dituen kontratuen adjudikazioak eta ente instrumentalei agindutako mandatuak bat datoz, haien alderdi esanguratsu guztietan, kontratazioari eta mandatuak agintzeari aplikatu beharreko araudiarekin.

OHARPENAK, EMANDAKO IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTENAK

Jarraian, egindako lanetik ondorioztatutako konklusioak edo oharpenak aipatzen dira, nahiz eta emandako iritzian eraginik ez duten:

- Hornidura eta laguntza kontratatzeke zenbait espedientetan daten arteko inkoherentziak daude segida logiko bati jarraitu beharko lioketen administrazio agiri batzuetan (beharrei buruzko txostena eta lizitazioari buruzko txosten juridikoa, balorazio-txosten teknikoa eta adjudikazioari buruzko txosten juridikoa, etab.).

- Hornidura kontratuak adjudikatzeke zenbait espedientetan eskaintza teknikoaren balorazio orokorra agertzen da, eta ez horien puntuazio partzialen banakapena, baldintza-orrietan xedatua-rekin kontraesanean.

- Laguntza kontratuak adjudikatzeke espediente batzuk eraentzen dituzten baldintza-orrietan jasota agertzen da eskaintza teknikoan baloratu beharreko alderdien banakapena, baina ez haien puntuazio partzialak, balorazio orokor bat baizik ez baita agertzen.

- Hezkuntza Departamentuaren hornidura espedienteetan, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legean ezarritako gehieneko balioa kontuan hartuta kalkulatu zen fidantzen zenbatekoa, kalkuluan gehituta aplikatu beharreko BEZa.

- Oro har, laguntza mandatu eta kontratu guztiak errepikakorrak dira denboran, eta Foru Administrazioaren beharrian iraunkorrei erantzuten diete.

- Orokorki, gastuak justifikatuta, onetsita, kontu-hartzaitzak onartuta eta zuzen kontabilizatuta daude, eta 30 egunetik beherako batez besteko epean ordaintzen dira.

- Halaber, orokorrean, prozedurak ezarri eta aplikatu dira kontrolatze aldera zerbitzuak baldintza-orrietan ezarritako estipulazioen arabera betetzen eta justifikatzen direla eta hornidurak epearen barnean jaso direla, inbentarioan alta hartuta.

- Nabarmendu beharrekoak dira gure lanaren norainokoarekin zerikusia duten geroagoko bi gertaera. Alde batetik, 2016ko apirilean indarrean sartu da Europako zuzentarau bat, administrazio publikorako gauzatutako jardueraren gaineko ehuneko (% 80) ezartzeari buruzkoa, zeina ente instrumentalek bete egin behar baitute, horrelakotzat hartuak izateko. Hori ikusita, Tracasa bitan banatu da, baldintza hori bete ahal izateko.

Bestalde, eta gure laginean sartu dugun Microsoft produktuen lizentzien errentamenduari buruzko kontratua gauzatzeari dagokionez, berrikusitako kontratua amaitu baino lehen, enpresa horrek auditoretza bat abiarazi zuen, Foru Administrazioaren produktuen hedapenari buruzkoa, kontratua berritze aldera. Auditoretza 2015aren amaieran bukatu zen, eta desdoikuntza handia agertu zuen kontratatutako produktuen (6.200) eta benetan hedatutakoen (12.035) artean. Horrek egoeraren erregularizazioa eskatzen zuen, enpresaren aldeko bi milioi euroan (BEZik gabe) baloratu zena.

Auditoretzaren emaitza eta dauden balizko irtenbideak eta aukerak aztertu eta gero, Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak erabaki du egungo kontratuko buy-out klausula erabiltzea; horrela, gaur egun instalatuta dauden lizentziak eta beste kopuru gehigarri bat jabetzan eskuratu ditu. Horrek guztiak 4,69 milioi euro inguruko kostua izan du. Gastu horri aurre egiteko, Nafarroako Parlamentuak 3,9 milioi euroko kreditu be-rezi bat onetsi zuen 2016ko maiatzean.

IV.3 AMAIERAKO KONKLUSIOA ETA GOMENDIOAK

Hortaz, azken hamarkadetan informatikari lotutako beharrak gehitu direnez, Foru Administrazioak hartu zuen erabakia izan zen kanpoko enprekin kontratuak egitea eta ente instrumentalei mandatuak agintzea, zeregin horietan jarduten duten bere langileak gehitu gabe. Horren eraginez, enpresa eta ente horiek daukate Foru Administrazioan erabiltzen diren produktu informatiko gehieneko gaineke jakintza, eta, beraz, Foru Administrazioa horien eta beraien produktuen mende dago, jardueraren ohiko kudeaketa garatzeko orduan.

Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak ia adjudikazio eta mandatu guztiak zentralizatzen ditu, horretatik eratorritako jardueren kontrola gauzatzeaz gain. Jarduera areagotu denez eta plantilla ez denez ordeztu, batzuetan kontrol hori ente instrumentalei agindu beharrean aurkitzen da. Horrek guztiak dakar erabiltzen diren aplikazio gehien gaineko jakintza teknikoa galtzea –bereziki, kontratazioen kasuan– eta kudeaketarako hain garrantzitsua den eremu horretan giza faktorea hein batean deskapitalizatzea.

Gure lana egin eta gero, honako hauek gomendatzen ditugu:

- *Informatikako kontratu eta mandatuetatik eratorritako jarduketan kontrolari eusten zaiola bermatzea, Foru Administrazioaren jardueraren eguneroko kudeaketarako daukaten garrantzia kontuan hartuta. Horretarako, zeregin horietan jarduten duten informatikarien plantillaren egokitasuna aztertuko da.*

- *Foru Administrazioaren plantilla organikoa urtero argitaratzea.*

- *Laguntza kontratuen baldintza-orrietako eskaintza teknikoaren balioespen orokorra puntuazio partzialetan banakatzea, baloratu beharreko alderdi bakoitzerako.*

- *Adierazita uztea eskaintza teknikoaren atal bakoitzari esleitutako puntuazio partzialak, dagozkien baldintza-orrietan zehaztuak.*

- *Kontrataziorako administrazio espedienteetako txostenei behar bezala jartzea data, gertaeren ordena logikoari jarraituta.*

- *Aplikatzekoa den araudian ezarritako fidantzen zenbatekoak exijitzea.*


- *Hezkuntza Departamentuak hasitako inbentariotze-prozedurarekin jarraitzea, ikastetxe publikoetan dauden ondasunei buruzko informazioa hobetze aldera.*

Txosten hau Karen Moreno Orduña auditoreak, lan honen arduraduna izan denak, proposatuta eman da, indarrean dagoen araudian aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2016ko ekainaren 28an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

I. ERANSKINA. INFORMATIKAREN, TELEKOMUNIKAZIOEN ETA BERRIKUNTZA PUBLIKOAREN ZUZENDARITZA NAGUSIAREN ANTOLAKETA EGITURA



2. ERANSKINA FORU ADMINISTRAZIOKO INFORMATIKA ZERBITZUGINTZARI BURUZKO JARDUERA-ADIERAZLEAK (2011-2015)

Adierazlea	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2014	Aldea (%) 2015/2011
Nafarroako Gobernu lanpostu kop. (1)	12.445	12.665	12.763	13.245	13.468	2	8
Tiket kop. (2)	99.013	114.295	134.256	142.572	165.965	16	68
Tiketen batez bestekoa, eguneko	271	312	368	391	455	16	68
Tiket moten ehunekoa							
Gorabehera	% 65	% 62	% 70	% 69	% 66	-4	2
Zerbitzu-ematea	% 35	% 38	% 30	% 31	% 34	10	-3
Tiketen ehunekoa, lehentasunaren arabera:							
Presakoa	% 3,5	% 3,5	% 1,8	% 1,5	% 1,6	7	-54
Handia	% 1,4	% 1,3	% 1,9	% 1,8	% 1,8	-	29
Ertaina	% 91,8	% 91,2	% 86,5	% 83,5	% 84,6	1	-8
Txikia	% 3,3	% 4,0	% 9,8	% 13,2	% 12	-9	264
Tiketari konponbidea aurkitzeko batez besteko denbora	5,83 egun	7,1 egun	7,1 egun	4,4 egun	3,9 egun	-11	-33
Tiketari konponbidea aurkitzeko moduen ehunekoa:							
Aurrez aurrekoa	% 41	% 43	% 33	% 31	% 30	-3	-27
Urrutiko laguntza	% 35	% 32	% 20	% 22	% 25	14	-29
Aplikazioan/sisteman goi mailara aldatzea	-	-	% 13	% 14	% 15	7	-
Telefono bidezkoa	% 16	% 14	% 9	% 7	% 7	-	-56
Bestelakoak	% 8	% 11	% 25	% 26	% 23	-12	188
Tiketen ehunekoa, departamentuaren/erakundearen arabera:							
Osasuna	% 18	% 29	% 35	% 37	% 36	-3	100
Lehendakaritza	% 36	% 32	% 18	% 25	% 26	4	-28
Insituzioak, erakunde publikoak, fundazioak eta bestelakoak	% 4	% 10	% 21	% 12	% 11	-8	175
Ekonomia eta Ogasuna	% 11	% 9	% 10	% 10	% 10	-	-9
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	% 9	% 9	% 7	% 6	% 7	17	-22
Bestelakoak	% 22	% 11	% 9	% 10	% 10	-	-55
Lan biziak	1.882	2.366	2.802	3.453	3.912	13	108
Lanen ehunekoa, departamentuaren arabera:							
Osasuna	% 22	% 27	% 27	% 28	% 28	-	-
Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza	% 28	% 27	% 25	% 21	% 20	-	-
Publikoaren Zuzendaritza Nagusia	% 14	% 18	% 21	% 18	% 15	-	-
Ekonomia eta Ogasuna	% 9	% 7	% 7	% 10	% 11	-	-
Lehendakaritza	% 8	% 6	% 4	% 3	% 6	-	-
Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa	% 19	% 15	% 16	% 20	% 20	-	-
Bestelakoak							

(1) Sartu gabe daude Hezkuntza Departamentuaren mende dauden ikastetxeetako ordenagailuak. Adierazi zaigunaren arabera, 16.000 ordenagailu inguru dira, eta horietatik 13.459 baino ez daude inbentariatuta, 2.500 zaharkituta egonda.

(2) Gehitu gabe daude Hezkuntza Departamentuak egin dituen tiketak: 2015ean 2.279 izan ziren, ikastetxeetan in situ gauzatu diren jarduketak zenbatu gabe.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

ALEGAZIOAK, FORU ADMINISTRAZIOAN INFORMATIKA KONTRATATZEARI ETA KUDEATZEARI (2011-2015) BURUZKO FISKALIZAZIO-TXOSTENARI AURKEZTUAK

Kontuen Ganberak behin-behineko txostena egin du, 2011-2015 aldian Foru Administrazioan informatika kontratatzeari eta kudeatzeari buruz. Txosten hori igorri didate, alegazioak aurkez ditzadan. Bada, iruzkin bat egin nahiko nuke, txosteneko honako konklusio hauek direla eta:

- Laguntza kontratuen baldintza-orrietako eskaintza teknikoaren balioespen orokorra puntuazio partzialetan banakatzea, baloratu beharreko alderdi bakoitzerako.

- Eskaintza teknikoaren atal bakoitzari esleitutako puntuazio partzialak, dagozkien baldintza-orrietan adierazitakoak, jasota uztea.

Bai baldintza-orrietan bai txostenetan adjudikazio irizpideen banakapen partzialak agertu beharri dagokionez, administrazio kontratazioaren arloko jurisprudentziak, doktrinak eta fiskalizazio erakundeek behin eta berriz adierazi diete administrazio kontratzaileei haien adjudikazioak oinarritzen dituzten balorazioen motibazioa ahalik eta neurri handienean hedatu eta zehaztu behar dutela. Horregatik, Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren baldintza-orrietan adjudikazio irizpideen banakapenak eta balorazio-neurriak hedatzen joan dira; hori horrela, gaur egun zorrotzagoak dira aztertutako aldian baino.

Zure esanetara nago erakunde horretatik behar diren azalpen guztietarako.

Iruñean, 2016ko ekainaren 23an

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: M^a José Beaumont
Aristu

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuako Lehendakaritzako kontseilariak aurkeztutako alegazioak aztertuta, ohar horiek txostenari buruzko azalpentzat hartu ditugu, ez baitute haren edukia aldatzen. Txostenari erantsi zaizkio eta txostena behin betikotzat jo dugu.

Eskerrak eman nahi ditugu lankidetzarengatik eta egindako alegazioen edukiarengatik.

Iruñean, 2016ko ekainaren 28an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

